

5

GIDA

DIDAKTIKOA:

SUA NOLA AURKITU ZUTEN
(IPAR AMERIKA)

AURKIBIDEA:

Gida didaktikoaren azalpena	1. or.
Helburuak	2. or.
Ekintzak	3. or.
Gidoi literarioa blokeka eta denborak zehaztuz	10. or.
Bibliografia	15. or.
Egileak	16. or.

	Etapako Helburuak	Edukiak
Ahozko hizkuntza	Ezagutzak eraikitzeke zein harreman pertsonalak garatzeko, gelako elkarrizketetan euskaraz parte hartzea, koherentziaz, elkarrizketaren arauak aintzat hartuz eta kooperaziozko jarrera adieraziz.	Gelan ematen diren azalpenak ulertzea, bai lana antolatzeakoak, bai ezagutzak eraikitzeakoak. Berdinen arteko elkarrizketa ikasteko tresna gisa erabiltzea.
	Hainbat eremutan ahoz komunikatzea, koherentziaz, egoeraren ezaugarriei erreparatuz eta hizkuntza-arauak aintzat hartuz.	Komunikazioko egoeraren ezaugarriak bereiztea, hala nola hartzailea eta helburua. Ikastetxean euskaraz komunikatzeko ohitura garatzea, ikasteko, jolasteko eta harreman pertsonaletarako. L2an komunikatzeko konfiantza eta ekimena garatzea. Ahozko testuak ekoiztea: kondairak. Ahozko komunikazioan ahotsaren kontrola lortzeko ekimena adieraztea.
	Interakziozko egoeretan komunikazioa sustatzen duten alderdiak aintzat hartzea.	Solaskideek hizkuntzaz egiten duten erabilerari begirunea izatea. Euskara ikasten ari direnen ahoskatzeari zein ekoizpenei begirunea adieraztea eta laguntzazko jarrerak garatzea.
Hizkuntza idatzia	Testu idatziak ulertzea eta interpretatzea, egoera berrietan aplikatu ahal izateko.	Irakasteko helburua duten testuak ulertzea, hala nola helburu didaktikoa dutenak zein eguneroko bizitzan erabiltzen direnak: azalpen mitologikoak.
	Gelako jarduerak burutzeko, testu idatzietan dagoen informazioaz baliatzea ezagutzak eraikitzeke.	Informazioa integratzea, identifikatuz, sailkatuz eta erkatuz. Hizkuntza idatzia komunikatzeko eta ikasteko tresna gisa balioestea.
	Gelako jarduerak burutzeko, grafikoetan dagoen informazioaz baliatzea ezagutzak eraikitzeke.	Hizkuntza idatziaren eta grafikoaren arteko ezberdintasun nagusiak bereiztea.
	Hainbat eremutan idatziz komunikatzea, koherentziaz, egoeraren ezaugarriei erreparatuz eta hizkuntza-arauak aintzat hartuz.	Ereduetatik abiatuz, testuak berridaztea. Ekoitziko dituen mezu idatziak hartzaileari eta helburuari egokitzea. Elementu grafiko eta paratestual xumeak erabiltzea. Landutako testuak identifikatzea: azalpena. Landutako testuen egitura identifikatzea: hipotesiak eta gertakariak. Eremu akademikoari dagozkion testuak sortzea informazioa lortzeko, antolatzeke eta adierazteke, hala nola: zerrendak, galdetegiak, laburpenak, eskemak, oinarrizko azalpenak.
Hizkuntzaren gaineko hausnarketa	Eremu guztietan ahoz zein idatziz eraginkortasunez komunikatzeko, hizkuntzen erabilerari buruz hausnartzea.	Ahozko eta idatzizko komunikazioen testuinguruak bereiztea. Ikasgelan lantzen diren testu-generoak identifikatzea, elementu paratestualei zein testualei erreparatuz. Testuen transformazioak egitea: kondaira aldatzea. Testuen atal batzuen izenak zein hizkuntza-sistemaren osagai batzuen izenak ikastea. Hizkuntza idatzia balioestea hainbat eremutan.
	Hizkuntzak ikasteko eta hobesteko konfiantza adieraztea.	
	Hizkuntzen sistemei buruz hausnartzea, ezagutzen dituenak zuzen erabiltzeko.	Testua komunikazioko unitate gisa ulertzea. Oinarrizko arau ortografikoak ezagutzea: esaldi berrirako puntua. Oinarrizko arau ortografikoei begirunea izatea: esaldi berrirako puntua.

EKINTZAK

JARDUERA FUNTZIONALA

- a) EKOITZI AZALPENEZKO TESTU BAT SUAREN JATORRIARI BURUZ. Informazioa behar duzunez, hemen duzu kondairan entzun duzuna. Horrez gain, informazio gehiago bilatu nahi baduzu, bilatu liburuetan, bilatu Interneten edo galdetu helduei:

a.2.

Kondairan ematen den informazioa	Marraztu
Hego Amerikako maputxe indiarren arabera, Domuyo sumendiaren gailurrean, Antü Malguen neska gaztea bizi da. Eguzkiaren lagun mina da. Aintzira batean, ileak orrazten ditu urrezko orraziaz, kanta-kantari.	
Eta bera omen da Eguzkiari bizirik irauten laguntzen diona, Eguzkia egunero etortzen baita hura ikustera eta entzutera. Bera da sumendia piztuta mantentzen duena.	
Kondaira baten arabera, maputxeek ez zuten sua ezagutzen, harik eta bi haurrek kasualitatez aurkitu zuten arte. Bi haurrak makila bati eragiten ari zitzaizkion, zirin horiaren gainean, eta, nahi gabe, su handi bat sortu zuten.	
Basoak eta zelaiak erre ziren. Animaliak ere hainbat hil ziren. Horren ondorioz, maputxeak jatekorik gabe geratu ziren.	

<p>Baina zaharrek esan zuten jainkoek emandako suak ona behar zuela izan; eta, hortaz, animalia erreak jaten ahal zirela.</p>	
<p>Haragi errea atsegin gertatu zitzaienez gero, berriro jatea erabaki zuten. Hartara, sua egiten hasi ziren.</p>	
<p>Sortzea nekosoan bazen, are nekosoagoa piztuta iraunaraztea. Emakumeen ardura zen sua piztuta edukitzea.</p>	
<p>Nola konpontzen ziren? Ba, txingarrak ontzietan gordetzen zituzten. Eta errukarria sua itzaltzen uzten zuena! Jainkoen eta gizakien gaitzespena hartzen zuen, eta, jakina, zigor latzak.</p>	

Informazio guztia ez da sinetsi behar. Zuen ustez, zer da fikzioa eta zer izan daiteke benetako informazioa?

a.2.) Webguneetan bilatzeko, hemen dituzue hauek:

Gizakiontzat sua oso garrantzitsua izan da, eta, kondaira honetan, animaliek nola lortu nahi zuten kontatzen digute.

Baina nola lortu zuten gizakiek sua menderatzea? Nola bururatu zitzairen sua egitea? Nola lortu zuten egitea?

Hona hemen hainbat webgune, informazio hori bilatzeko.

Noiztik erabiltzen den jakin nahi baduzu, jo webgune honetara:

<http://www.deli.deusto.es/AboutUs/Members/Abaitua/Index/Yihaw/fuego>

Menderatzea nola lortu zuten jakin nahi baduzu, jo webgune honetara:

<http://www.educar.org/inventos/fuego.asp>

<http://library.thinkquest.org/27767/desc.htm>

<http://www.educar.org/inventos/fosforos.asp>

B) Superstizioa eta gertakariak:

B.1. Sarean zun-zun, sarean zun-zun zena, lau kirikun, lau kirikun lena.

B.2. San Joan, San Joan,
sorginaren begia galdu da,
galdu bada, gal bedi,
sorgina ageri!

b) BEREIZI HIPOTESIAK ETA FROGAK

Noiz hasi ginen sua menderatzen? Erantzuna ez dakigu, baina, duela gutxi, datu berri bat daukagu.

Beti pentsatu izan da suaren kontrola duela 500.000 urte lortu genuela, baina, datu berri batzuei esker, lehenago menderatzen zutela jakin da.

Datuak beharrezkoak dira ezagutzak ontzat emateko. Hona hemen ezagutza hori ontzat emateko erabili diren datuak.

GERTAKARIAK	HIPOTESIA	ZALANTZAK
Sute baten arrastoak aurkitu dituzte.	Nahita piztua izan da.	Nola jakin daiteke nahita piztua izan dela?
Suaren inguruan, harriak jarrita zeuden, eta alde batzuetatik erreta zeuden, ez osorik.	Gizakiek jarri zituzten.	Sua naturala izan balitz, harri gehiago agertuko ziren erreta, eta ez zati bat bakarrik, osorik baizik.
Sutean, egur ezberdinak erabili ziren: 6 egur mota.	Gizakiek jarri zituzten.	
Egur mota horiek oso onak dira sua egiteko.	Egurra aukeratua zen.	Kasualitatea ote zen?
Suaren inguruan jaki-hondakinak agertu dira: haragia eta fruituak	Sua elikagaiak prestatzeko erabiltzen zuten.	Hondakinak istripuz erre ziren animalienak ziren?
Egur-hondakinak ez zeuden erabat erreta.	Sua kontrolatua izan zen.	Agian, euriak itzali zuen.

Eztabaidarako, webgune hauetan ematen den informazioa erabil dezakezue. Konturatzen bazarete, bietan ados daude suaren erabilera adierazten duten gertaerekin, baina ez daude ados suaren erabileraren dataekin:

<http://www.cnice.mecd.es/eos/MaterialesEducativos/mem2001/huellas/origenes/paleolitico/021conquistafuego.htm>

<http://www.deli.deusto.es/AboutUs/Members/Abaitua/Index/Yihaw/fuego>

Egin ezazue aurkikunde honen inguruan irudikatzen duzuen eztabaidaren komikia edo elkarrizketa idatzia.

Gogoan izan eztabaida batean zaindu behar diren arauak:

- Adierazpen-askatasuna.
- Hipotesiak datuetan eta behaketetan oinarrituz egin behar direla.
- Iritzia begirunez adierazi behar dela.
- Aurkakoak azaltzen duena ulertzen ahalegindu behar dela.

Informazio biak irakurri ondoren, zein hipotesi baieztatzen da zuen ustez?

b) Suaren aurkikunde azaltzeko, antzezlan bat prestatuko duzue taldeka. Hona hemen behar duzuen informazioa:

- a) Gizakiek suari naturan behatu zioten: sumendietan, meteoritoek eragindako suteetan, tximistek basoetan eragindako suteetan.
- b) Halako suteran batean, su-txingarrak hartu, eta erabiltzen hasi ziren.
- c) Hasieran, suaren beroa bilatzen zuten, hotzetik babesteko.
- d) Nola konturatuko ziren suak jakiak egosten edo erretzen zituela?
- e) Eta suak metalak urtzeko balio zuela?
- f) Eta suak buztina egosteko balio zuela?
- g) Eta sua berpizten? Hau da, su batetik hartutako txingarrarekin beste su bat piztea erraz burura daiteke. Baina, sua itzali ondoren, nola ikasi ote zuten pizten?
- h) Eta sua zaintzea? Nola lortuko zuten sua iraunaraztea?
- i) Gaur egun, pospoloak eta txiskeroak ditugu sua pizteko, baina, duela denbora asko, artzainak mendian zehar ibiltzen zirenean, nola egiten zuten sua izateko?

Erantzun galdera horiei, azaldu zuek irudikatutakoa sinesgarritasunez, kontakizun baten bidez, eta baduzue fikziozko narrazio bat. Nahiz eta zientziak frogatutako datuak erabili, hainbat gauza asmatu egin beharko dituzue, hau da, fikzioaz baliatu beharko zarete.

Erabaki dekoratua, jantziak eta argia.

c) Zuek ikertzaile: Orain arte, guk proposatu dizuegu ikertzeko gaia. Hona hemen suarekin zerikusia duten beste gai batzuk:

- a) Suterik gerta ez dadin hartu beharreko neurriak: etxean, autoan, basoan...
- b) Sutea denean, babesteko zer egin behar den.
- c) Ehun erregaitzak: jantzi erregaitzak.
- d) Eraikinetan sutea saihesteko neurriak eta sistema teknikoak.
- e) Suhiltzaileak.
- f) Beroa nola sortzen den.
- g) Zer gertatzen da materia erretzen denean?
- h) Sua uretan egin daiteke?
- i) Suaren erabilpena industrian
- j) (Zuk proposatutakoak...)

Hala ere, lehendabiziko arazoa informazioa aukeratzea izango da: Interneten bilatzen baduzue, bilatzailean jartzen dituzuen HITZAK ondo pentsatu beharko dituzue, nahi duzuen informazioa lortzeko; bestela, sua agertzen den makina bat orri agertuko zaizkizue.

Zein da interesatzen zaizuen? Nola jakin? Adibide bat erakutsiko dizuegu:

Demagun suaren erabilpena interesatzen zaizuela.

"sua" hitza jarriz gero, **34.800.000** webgune agertuko zaizkizue.

BERAZ: gehiago zehaztu beharko duzue: "suaren erabilpena industrian" idatzi eta, kasu honetan, webgune gutxiago agertuko dira. Aukera ezazue zuek behar duzuen.

Hemen, webgunearen esteka kolore urdinez dago.

[Zientzia.net: Artikuluak - Gas naturala: petrolio-egarria ...](#)

Dena den, gaur egun erregai moduan duen **erabilpena** hutsaren hurrengoa da. ...

Argentinak **Suaren** Lurraldean zehar gas naturalezko hobi garrantzitsuak ...

www.zientzia.net/artikonts.asp?Artik_kod=8238 - [84k](#) - [Katxean](#) - [Antzeko orriak](#)

[Zientzia.net](#) estekaren azpian, aurkituko duzuen informazioaren laburpena dago. Horri esker, jakin dezakezue interesatzen zaizuen ala ez. Kasu honetan, ez zaizue interesatzen, gas naturalari buruzkoa baita. Baina bertan 'sua' eta 'industria' hitzak ageri direlako agertu zaizue.

Irakurri webgune bakoitzaren laburpena, eta aurkituko duzue bilatzen duzuen.

Euskaraz ez baduzue lortzen, saia zaitezte ingelesez eta gaztelaniaz.

EKOIZPENA:

Ikertu duzuen beste taldekideei adierazi behar diezue. Ahoz eta irudiz.

Azalpena prestatzeko aholkuak:

- PLANIFIKATU
 - o Bildu ideiak.
 - o Ideiak adierazteko, bilatu irudi lagungarriak.
 - o Jarri ideiak ordenan.
- IDATZI
 - o Pentsatu nori adierazi behar diozuen.
 - o Idatzi plana eta eskema.
 - o Adierazi ideien arteko lotura.
- ADIERAZI
 - o Jarraitu planari: agurtu, aurkeztu gaia eta adierazi ideiak pentsatutako hurrenkeran.
 - o Begira ezazue ea ulertzen duten; bestela, adierazi beste era batera.
 - o Erabili hartzailearen arreta mantentzeko estrategiak: handizkatzea, umorea, abiadura-aldaketak, intonazio hanpatua...
 - o Hitz egin entzuteko moduan.

SUA NOLA AURKITU ZUTEN (IPAR AMERIKA)

GIZONA: La-lara-laraaa... laralaraaaaaa...

MARI: (OFF) ...Eta, basoan gure lagunak loreak biltzen zituen bitartean... Orduantxe agertu zen sorgin gaiztoa.

SORGINA: Juuumh... Mmmh... Kar, kar, kar... (*Barrea*)

MARI: (OFF) Bueno, egia esateko, ez zen hain gaiztoa ere, jostalaria eta bihurria baizik. Koitadu hari adarra jo behar zion nola edo hala, eta erabakita zeukan: igel bihurtuko zuen.

GIZONA: E? A! Kaixo!

SORGINA: (*Barrea*) Artxila, mortxila! Igel bihur dadila!

GIZONA: Ez, ez...

SORGINA: Kar, kar, kar...

MARI: (OFF) ... eta, hala bazan edo ez bazan, sar dadila kalabazan eta ager dadila Gasteizko plazan... Zer? Gustatu zaizu? E?

IRATI: Bai, aaaaaii! Uuuuii! Hotzak nago, ai!

MARI: Jar zaitez, ba, sutondoan; ikusiko duzu nola berotzen zaren.

IRATI: Baai, bai!... Ideia ona...

MARI: Ai, ume hauek... (*Barrea*)

IRATI: Kondaira entzuten, ez dut begirik itxi. Eskerrak sua dugun!

MARI: Bai; ba, imajina ezazu ezagutzen ez zutenean.

IRATI: Ez dut pentsatu ere egin nahi! Ai, hau hotza!

MARI: (OFF) (*Barrea*) (ON) Bueno... Banoa lotara.

IRATI: Eta sua nola aurkitu zuten?

MARI: Ez, ez, ez, ez; orain, lo egitera noa. Ez hasi galdezka, hori beste istorio bat da eta!

IRATI: Ooo! Eta, noiz kontatuko didazu?

MARI: Ez dakit, orain ez behintzat! Ondo lo egin!

IRATI: Baita zuk ere.

IRATI: (*Abesten ari da*) San Joan, San Joan...

...sorginaren begia galdu da, galdu bada...

...gal bedi, sorgina ageri! O!

ILARGI: Nork deitu dit?

IRATI: E?

ILARGI: Ummm... Kaixo! Zuk deitu didazu?

IRATI: Ez.

ILARGI: Jumm! Nola ezetz? Ez duzu esan “sorgina ageri”? Jumm! Ba, hemen naukazu. Zer nahi duzu?

IRATI: E... e... ezer ez.

ILARGI: Orduan, zertarako deitu didazu?

IRATI: N... nik ez dizut deitu; abesten ari nintzen!

ILARGI: Bai zera! Hori, abestia baino gehiago, sorginkeria da! Kontuz ibili hurrengoan.

IRATI: Ondo da. Orain, joan zaitezke.

ILARGI: Mmmmm... Tira, ez dut presarik. Gainera, hemen goxo-goxo nago... (*Hasperenka*) ...suaren ondoan! Aaiii... hau bai bizimodua! Mmm! (*Kanta-marmarrear*) Eta? Zer egin daiteke hemen?

MARI: (*Zurrungaka*)

IRATI: Ezer ez. Gainera, Mari lotan dago, eta esnatu egingo duzu.

ILARGI: A, horregatik ez kezkatu...

MARI: (*Zurrungaka*)

ILARGI: Sarean zun-zun, sarean zun-zun...

IRATI: Haraaa! Izugarriaaa!

ILARGI: Jummmmm!... Ea zer dagoen hemen! (*Barrea*)

IRATI: E? Baina... zer...? Ezin duzu hori egin...

ILARGI: Puaj! A zer itsusia den! Eta hau zer da? E? Ba!

IRATI: Horiek Mariren gauzak dira!

ILARGI: Ea... ea...

IRATI: Baina zer egiten duzu?

ILARGI: Hara, hara! Zer dugu hemen? Begira nondik atera dituen kondaira guztiak!

IRATI: Nola?

ILARGI: (OFF) (ON) Marik liburuetatik ateratzen dituela kontatzen dizkizun kondairak!

IRATI: Eta zer? Hori normala da!

ILARGI: Ba, nik uste nuen asmatu egiten zituela.

IRATI: Emmm... irakur ezazu bat.

ILARGI: Tira... zein nahi duzu?

IRATI: Suaren historia ezagutu nahi dut.

ILARGI: Bueno, eta... zergatik ez duzu zeuk irakurtzen?

IRATI: Ba, horixe bera pentsatu dut nik, baina ez dakit irakurtzen.

ILARGI: Aaaaa, tira! Zatoz, irakurriko dizut.

IRATI: Aupaaa! Bibaaaa!

ILARGI: Bazen behin Ameriketean, Ipar Amerikan bizi zen otso talde bat. Neguan, hotz handia pasatzen zuten. Eta, gizakiek sua bazutela jakinda, (OFF) plan bat prestatu zuten sua lortzeko.

BELTZA: Hauek dira gizakiak... eta beren sua geuretzat hartuko dugu.

MARROIA: Beren sua hartu? Nola baina?

BELTZA: Ba, hain zuzen, zeu izango zara hartuko duena. Sua zeureganatuko duzu... eta itxaron, beste guztiok heldu arte. Eta, orduan, akabo gure bizimodu latza! (*Barrea*)

MARROIA: Ez dakit ba...

IRATI: (OFF) Sua lapurtu behar zuen?

ILARGI: (OFF) Edo eskatu! (ON) Beraz, taldeburuak otso hari gizakiengana joateko agindu zion. Eta halaxe egin zuen. (OFF) Gizakiengana hurreratu zen otsoa. Beldurtuta hurbildu zitzairen, gizakia eta otsoa etsaiak zirelako.

LEIZER GIZ.: Uuum! Zer gozoa dagoen azenario hau!

LEIZER EMAK.: Madaria ere bai! Nahi duzu pixka bat?

LEIZER GIZ.: (OFF) Ez, milesker.

MARROIA: Horra gizakiak. Hurbildu egingo naiz, ea zer gertatzen den...

ILARGI: (OFF) Gizakiek jaten eman zioten, baita sutondoan jartzen utzi ere. Horrela, negua bero-bero eta asean eman zuen.

LEIZER GIZ.: Eser zaitez gurekin, suaren ondoan.

MARROIA: O! Eskerrik asko...

LEIZER EMAK.: Nola duzu izena?

LEIZER GIZ./LEIZER EMAK./MARROIA: (*Barrea*)

IRATI: (OFF) Eta beste otsoak, zer? Zain?

ILARGI: (OFF) Bai. Otso hura gizakiak maitatzen hasi zen. Eta ezin izan zion lapurtu, berarekin oso ondo portatu ziren eta.

IRATI: Ja! Berarekin, agian. Baina, besteekin, zer?

ILARGI: Baaa... Gustatu edo ez, hori da kondaira!

IRATI: Bukatu da, ala?

ILARGI: (OFF) Bai. Otsoa gizakiekin geratu zen bizitzen. Eta gizakiek txakur izena eman zioten.

IRATI: (OFF) Hori azala! Gainera, izena aldatu!

LEIZER EMAK.: Orain, denok jolastuko gara. Guk makilatxoa botako dugu, eta zu bila joango zara.

MARROIA: Ongi, ongi...

LEIZER GIZ.: Hor doa!

LEIZER GIZ./LEIZER EMAK.: Bizkor, bizkor. (*Barrea*)

MARROIA: Ondo egin dut, ezta?

LEIZER GIZ./LEIZER EMAK.: Bai, oso ondo, primeran!

MARROIA: Berriro, berriro...!

ILARGI: Zori on kontatu duenarentzat! Eta zori on entzun duenarentzat!

IRATI: (*Errietan*) Nola? Lehen esan didazu... Ez didazu ulertu, ala?

ILARGI: Zer ez dizut ulertu?

IRATI: Sua nola sortu zen jakin nahi dut nik, eta oraindik ez didazu kontatu. Ez al dator liburuan?

ILARGI: Zuk baduzu, gero, kopetan azala!

IRATI: Zer, aurkitu al duzu? E, e, e... Horrek Mari dirudi.

ILARGI: E? Ummm... A! Ezin liteke izan. Kondaira hau Hego Amerikakoa da.

IRATI: (OFF) A! (ON) Ba, urrezko orrazia du, eta aintziran bizi da. Hori lamia duzu, dudarik gabe!

ILARGI: (OFF) (*Irakurtzen hasi da*) Asko dira suaren sorrerari buruzko kondairak. Hona horietako bat: Hego Amerikako maputxe indiarren arabera, Domuyo sumendiaren gailurrean, Antü Malgüen neska gaztea bizi da. Eguzkiaren lagun mina da. Aintzira batean ileak orrazten ditu urrezko orraziaz, kantakantari. Eta bera omen da Eguzkiari bizirik irauten laguntzen diona, Eguzkia egunero etortzen baita hura ikustera eta entzutera. Bera da sumendia piztuta mantentzen duena.

MARI: (*Zurrungak*)

IRATI: Hara, hara. Horrek ez du azaltzen, ordea, gizakiek sua nola lortu zuten.

MARI: (*Zurrungak*)

ILARGI: Ea, ba, hau izan daiteke. (*Irakurtzen ari dela*) Kondaira baten arabera, maputxeek ez zuten sua ezagutzen, harik eta bi haurrek kasualitatez aurkitu zuten arte.

IRATI: Aaaa...

ILARGI: (OFF) Bi haurrak makila bati eragiten ari zitzaizkion, zirin horiaren gainean, eta, nahi gabe, su handi bat sortu zuten. Basoak eta zelaiak erre egin ziren. Animaliak ere hainbat hil ziren. Horren ondorioz, maputxeak jatekorik gabe geratu ziren. Baina zaharrek esan zuten jainkoek emandako suak ona behar zuela izan; eta, hortaz, animalia erreak jaten ahal zirela.

ILARGI: Haragi errea atsegin gertatu zitzaenez gero, berriro jatea erabaki zuten. Hartara, sua egiten hasi ziren.

IRATI: A, a zer lana! Oso nekoso da.

ILARGI: (*Barrea*) Bai, eta sortzea nekoso baten, are nekosoagoa piztuta iraunaraztea. Emakumeen ardura zen sua pizturik edukitzea.

IRATI: Nola konpontzen ziren?

ILARGI: (OFF) Ummm... Ba, txingarrak ontzietan gordetzen zituzten. Eta errukarria sua itzaltzen uzten zuena! Jainkoen eta gizakien gaitzespena hartzen zuen, eta, jakina, zigor latzak. Jainkoei oparia eskertzeko, argi-olatak egiten zituzten.

IRATI: Hori da dena?

ILARGI: Ez dakit ba... Zer gehiago nahi duzu?

IRATI: Sua ona edo txarra izan daiteke. Ez du horri buruz ezer esaten?

ILARGI: Bai! Begira iratxo hauei.

IRATI: E? Zer dira?

IRATXO X/IRATXO Z: (*Barrea*) Orain! Bai, bai!

ILARGI: (OFF) (*Irakurri egingo du*) Iratxo hauek Anchimallén dute izena. Lapur txikiak dira, eta deabruarentzat lapurtzen dute.

IRATXO X/IRATXO Z: (*Barrea*)

BASERRITARRA: Ai, ene! Lagunduuuu!

IRATXO X/IRATXO Z: (*Barrea*) Tira, geurea da eta! Bai, eraman diezaiogun Txerreni!

BASERRITARRA: Ene! Nire zaldia daramate!

IRATXO X/IRATXO Z: (*Barrea*)

IRATI: (OFF) Eta horrek zer ikusteko du suarekin?

ILARGI: (OFF) Sua jendea izutzeko erabiltzen dute, eta, gero, lapurtu egiten diete.

IRATXO X/IRATXO Z: (*Barrea*) Goazen, goazen... A zer zaldi polita! Bai, eraman dezagun lehenbailehen...

BASERRITARRA: Aaaaa! Lapurrak! Lapurraaaak! (*Negar*) Zer egingo dut orain? (*Negar*) Harrapatuko zaituztet! Iratxo madarikatuaaak!

ILARGI: (OFF) Hara, begira zer jartzen duen! Hemen dio Anchimallén iratxoen argia zuhaitz baten adarrean, mendi-tontorrean edo etxeko teilatuan ager daitekeela, eta norbait hilko den seinale dela. Hau beldurra!

IRATI: (OFF) Bo! Kondaira bat da! Iratxoak ez dira existitzen.

ILARGI: (OFF-ON) Ja! Ez egon horren ziur. Sorginok ere ez gara benetakoak, eta hemen nauzu!

IRATI: Bai, zera! Tira, tira, zu nire irudimenetik atera zara, eta oraintxe bertan desagertuko zara.

ILARGI: Ez, ez iezadazu hori egin! Arreeeeeeeen!

IRATI: Bai, agur. Kondaira amaitu da, eta ni lotara noa!

ILARGI: Ez, ez, mesedeeez! Ez, eeez! (OFF) Ez dut alde egin nahi! Dei egidazu berriro!

IRATI: Kar, kar, kar... Bale, baina hurrengo batean (*Barrea*).

BIBLIOGRAFIA.

- AZKUE, R. M. (1989). Euskalerrriaren yakintza. Literatura popular del País Vasco II: Cuentos y Leyendas. Euskaltzaindia & Espasa Calpe. Madrid.
- Mundu zabaleko ipuinak (1981) Gero argitaletxea. Bilbo.
- DUESO, J. (1997). Cuentos y leyendas de Euskal Herria fantástica ROGER argitaletxea. Donostia
- BARANDIARAN IRIZAR, L. (1995). Antología de fábulas, cuentos y leyendas del País Vasco. Donostia
- BASILE, J. B. (1991). El pentamerón. José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona.
- JACOBS, J.(1987). Cuentos de hadas célticos. José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona.
- ANDERSEN, C. (1973). La sombra y otros cuentos. Alianza Editorial, S.A. Madrid.
- CURTIS, E.S.(1999). Las flechas mágicas y otros relatos de los indios cheyenes, comanches, wíchitas... José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona
- GUEL BENZU, J. M. (1996). Cuentos populares españoles. Siruela argitaletxea. Bartzelona.
- AFANASIEV, A. N. (1983). Cuentos populares rusos I. Anaya argitaletxea.
- El gran encuentro. liburu bilduma. (1995). SM argitaletxea.
- PHILIP, N. (1995). El libro ilustrado de los mitos. Ediciones BUHO:, S.Alizia.
- GIBSON, M. (1984). Monstruos, dioses y hombres de la mitología griega. Anaya
- TAO TAO LIU SANDERS. (1984). "Dragones, dioses y espíritus de la mitología china" Anaya
- BRANSTON, B. (1984). Dioses y héroes de la mitología vikinga. Anaya

Interneteko helbideak:

www.Zernola.net: Alegiak/alegien zerrenda

<http://www.pnte.cfnavarra.es/kzeta/ipuina.htm>

<http://www.teatroa.com/ipuinak.html>

<http://www.teatroa.com/ipuinak/36lamia.html>

Egileak

GOIATZ MULTIMEDIA, S.L.

PRODUKTOREA:

Luisa Calvo

EGITASMOA, GIDOIA
ETA GIDA DIDAKTIKOA:

Luisa Calvo

GIDA DIDAKTIKOA
EUSKARAKO ARDURADUNA:

Joan Ignazio Bereziartua

ZUZENDARITZA ETA
ERREALIZAZIOA:

Mikel Val

SOINU-BANDA:

Inhar Val

EDIZIOA:

Goiatz Multimedia, S.L.

TXOTXONGILOAK:

Goiatz Multimedia, S.L.

DEKORATUAK:

Sara García

TXOTXONGIOLARIAK:

Macarena Sobrón

Noemí Sobrón

Ana M^a Rodríguez

K2000 S.A.

Produktore exekutiboa:

Tomas Ugalde

Euskarako arduraduna:

Josu Varela

Bikoizketako zuzendaria:

Alvaro Sánchez

Sarrerako kanta:

Ana Tere Bengoetxea

Ahotsak:

Monika Erdozia

J. L. Irigoien

Pedro Arrieta

Ana T. Bengoetxea

Ramón F. De Castro

Kepa Kueto

Jon Goirizelaia

Tere Jaio

Eduardo Gorriño

Audioko teknikariak:

Ricardo Goti

Antonio González

Javier Artetxe

Nahasketak:

Gorka Lara

Juan C. Cantera

Produkzioko laguntzailea:

Ana Urresti

Koordinatzailea:

Jon Arce

EIMA 2000

Ikasmaterial honek Hezkuntza,
Unibertsitate
eta Ikerketa Sailaren
egokitasun-aitormena du:
2008/05/14

LEGEZKO GORDAILUA: SS-1498/05

Copyright 2007:

L.C. PRODUKTOREA